

Proiektuetarako jarduerak | 3. Blokea: Interakzioa. LANBIDE-HEZIKETA

Erdi- eta Goi-Mailako LH. 16-20+ urte

Konp-eT-enteak

	Lanbide-Heziketa 16-20+ urte
	Maila Ertaina
	Denboralizazioa 10 saio
	Kideak 4 kide

JARDUERAREN DESKRIPZIOA

Jarduera hau beste ikastetxeko ikasleekin harremanetan jartzeko egingo da. Nork bere burua laburki aurkeztu ondoren, nazioarteko ekipoak osatuko dira eta horiek ados jarri beharko dira, elkarren arteko hartu-emanaren bidez, eta erabilerarik ez duen eta bere lan eremuarekin zerikusia duen objektu bat saltzen saiatuko dira.

JARDUERAREN XEDEA

Enpresek eskatzen dituzten konpetentzia-profilen eta ikastetxeetatik irten berri diren ikasleen profilen inguruan hausnartzeko jarduera bikaina da. Horregatik, xedeak hauek dira:

1. Konpetentzia-profilak zehaztea eta enpresek eskatzen dituzten profilen inguruan hausnartzea.
2. XXI. mendeko lan merkatuko konpetentzien inguruan hausnartzea.

JARDUERAREN GARAPENA

1. fasea. Prestatzea

1. urratsa. Nazioarteko ekipoei rolak ematea

Irakasleen Google Docs edo antzeko dokumentua partekatuko du eta horretan irakasle bakoitzak bere ikasleen zerrenda idatziko du. Ikasle bakoitzari 1etik 4rea doan zenbaki bat emango dio. Horrela, bere taldea 4 azpitaldetan banatuko da eta ikasle bakoitzak zenbaki bat izango du.

1. tutoriala: [Google Docs-en edo antzeko batean dokumentuak sortzea.](#)

Gero, irakasle bakoitzak zenbaki bakoitia duten ikasleen izenak ENPLEGU-ESKATZAILEAK deritzon rol-taulan idatziko ditu. ENPLEGU-EMAILEAK deritzon rol-taulan zenbaki bakoitia duten ikasleen izenak jarriko ditu.

Dokumentua hurrengo estekan eskuragarri egongo da:

https://docs.google.com/document/d/1xrqC4x97HvOUdtuRh9j5Vj7jjJuiKtlio8OOiw_An74/edit?usp=sharing

eta ikaslearen identifikazio generikoa jasotzen dituzten taulak agertuko dira, ikaslearen taldeko zenbaki eta hizkiarekin (izena eta abizena).

eTwinning proiektuaren izena: Enplegu-azoka eTwinning-en (gezurretako izena)

CENTRO EDUCATIVO 1 (16 estudiantes)			
Asignación de números al alumnado (Nombre y apellidos)			
1	2	3	4
Estudiante 1a	Estudiante 2a	Estudiante 3a	Estudiante 4a
Estudiante 1b	Estudiante 2b	Estudiante 3b	Estudiante 4b
Estudiante 1c	Estudiante 2c	Estudiante 3c	Estudiante 4c
Estudiante 1d	Estudiante 2d	Estudiante 3d	Estudiante 4d

CENTRO EDUCATIVO 2 (16 estudiantes)			
Asignación de números al alumnado (Nombre y apellidos)			
1	2	3	4
Estudiante 1a	Estudiante 2a	Estudiante 3a	Estudiante 4a
Estudiante 1b	Estudiante 2b	Estudiante 3b	Estudiante 4b
Estudiante 1c	Estudiante 2c	Estudiante 3c	Estudiante 4c
Estudiante 1d	Estudiante 2d	Estudiante 3d	Estudiante 4d

CENTRO EDUCATIVO 3 (16 estudiantes)			
Asignación de números al alumnado (Nombre y apellidos)			
1	2	3	4
Estudiante 1a	Estudiante 2a	Estudiante 3a	Estudiante 4a
Estudiante 1b	Estudiante 2b	Estudiante 3b	Estudiante 4b
Estudiante 1c	Estudiante 2c	Estudiante 3c	Estudiante 4c
Estudiante 1d	Estudiante 2d	Estudiante 3d	Estudiante 4d

CENTRO EDUCATIVO 4 (16 estudiantes)			
Asignación de números al alumnado (Nombre y apellidos)			
1	2	3	4
Estudiante 1a	Estudiante 2a	Estudiante 3a	Estudiante 4a
Estudiante 1b	Estudiante 2b	Estudiante 3b	Estudiante 4b
Estudiante 1c	Estudiante 2c	Estudiante 3c	Estudiante 4c
Estudiante 1d	Estudiante 2d	Estudiante 3d	Estudiante 4d

2. urratsa. TwinSpace prestatzea

Irakasleek jarduera-orrialde bat sortuko dute TwinSpace-n «**Ikasleen ekipoak eta rolak**» izenarekin eta Google Docs dokumentu partekatua igoko dute, ENPLEGU-ESKATZAILEAK eta ENPLEGU-EMAILEAK izeneko taldeak nola banatzen diren jarritz. Dokumenturako esteka ere jarriko da.

The screenshot shows a Google Docs document titled "EQUIPOS Y ROLÉS DEL ALUMNADO". The document is organized into four tables, each representing a team of students. The tables are labeled "EQUIPO 1: COMANDANTES DE EQUIPO", "EQUIPO 2: OBSERVADORES DE EQUIPO", "EQUIPO 3: EMULADORES", and "EQUIPO 4: EMULADORES". Each table has 4 columns and 4 rows, with cells containing student names like "Estudiante 1a", "Estudiante 1b", etc. The document also includes a sidebar with a list of pages and a "CREAR FIGURA" button.

2. fasea. Perfil profesionalak deskribatzea

3. urratsa. Prestakuntza akademikoarekin lotutako konpetentziak

Herrialde bakoitzean lanbide-tituluetan lortzen den profil profesionala legez arautzen da. Lanbide-Heziketako etorkizuneko langileen ezaugarriak ezagutzeko oinarritzko dokumentazioa da. Jarduera honetan Espainiako adibidea zehazten da. Beste herrialdeetan informazio hau horien edukazio-administrazioen orrialdeetan ikus daiteke.

Lanbide-Heziketako titulu baten konpetentzia profesionalak, digitalak eta linguistikoak elkarlanean biltzeko, Hezkuntza eta Lanbide-Heziketa Ministerioaren orrialdera jo behar da <http://www.mecd.gob.es/portada-mecd/>. Bertan tituluak eta curriculumak jasotzen dira, horiei lotutako konpetentziekin, Lanbide-Heziketaren atalean <http://todofp.es/inicio.html>



Tituluak eta curriculumak hurrengo orrialdean jasotzen dira: <http://todofp.es/que-cómo-y-dónde-estudiar/que-estudiar/nuevos-títulos/curriculos-ministerio-educacion.html>

Bai Ministerioaren curriculumak eta bai autonomia-erkidegoenak kontsulta daitezke.

Familia	Titulación	Real decreto	Currículo Ministerio	Currículos CCAA	Perfiles profesionales	Dónde estudiar
Actividades Físicas y Deportivas	Técnico Superior en acondicionamiento físico	BOE	-	ES	ES	ES
	Técnico Superior en Enseñanza y Animación Sociodeportiva	BOE	-	ES	ES	ES
Administración y Gestión	Técnico Superior en Administración y Finanzas	BOE	ES	ES	ES	ES
	Técnico Superior en Asistencia a la Dirección	BOE	ES	ES	ES	ES
Agraria	Técnico Superior en Ganadería y Asistencia en Sanidad Animal	BOE	ES	ES	ES	ES
	Técnico Superior en Gestión Forestal y del Medio Natural	BOE	ES	ES	ES	ES
	Técnico Superior en Paisajismo y Medio Rural	BOE	ES	ES	ES	ES

Adibide bat Nazioarteko Merkataritzako Goi-Mailako Teknikari titulua izan daiteke eta titulu hori BOE-n (Estatuko Aldizkari Ofiziala) deskribatzen da https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2011-19439

Ikasleak titulu profesionalen dokumentazioarekin ohitu daitezten eta titulu hauek ezartzen duten profil ofiziala ezagutu dezaten, titulazio hauetan eskuratzen diren konpetentziak jasoko dituzten produktu digitalak sortzea proposatzen zaie.

3. fasea. Ekipoetan elkarlanean aritzea emandako rolaren arabera

Jarduera-orrialde bat sortuko da «**Lan bila**» izenarekin. Hor ekipoek sortutako materialak igoko dira, bai enplegu-eskatzailleek rola dutenenak eta bai enplegu-emaileen rola dutenenak.


- Enplegu-eskatzailleak:

- «Konpetentzia profesionalak, digitalak eta linguistikokoak» landuko dituzte.
- Produktu digitala: Info-Curriculum Vitae (Info-CV) aurkezpen-moduan konpetentzia profesional, digital eta sozialekin lana eskatzeko.

- Enplegu-emaileak:

-
- «Konpetentzia pertsonalak eta sozialak» landuko dituzte.
- Produktu digitala: Hitz-hodeia XXI. mendeko lan munduan beharrezkoak diren trebetasun sozialak.

Sortutako orrialdeak irudiak honako itxura izango du:



4. urratsa. Profil profesionala aurkeztea

Lana bilatzen duten taldeek aurkezpen digitalak sortuko dituzte eta horietan zenbait konpetentzia profesional, digital eta linguistiko erakutsiko dira, zeinak bere heziketa-zikloa jarraitzean jasotzen dituzten eta etorkizuneko lan-testuinguruetan lana eskatzerakoan erabilgarriak diren.

Aurkezpenetarako tresna erabiltzea proposatzen da, Piktochart edo antzeko bat, adibidez. Proiekturako posta-kontu komun bat sortu bada, nazioarteko ekipoen produktu digital guztiak toki berean gordeko dira. <https://piktochart.com/>

Aurkezpen konpetentzial digital hau Info-Curriculum Vitae laburtu gisa erabil daiteke langile bila dauden enpresei mezu elektronikoz bidaltzeko. Aurkezpen digitalak lehen sortutako «**Lan bila**» izeneko jarduera-orrialdean gehituko dira.

2. tutoriala: **Infografiak Piktochartekin**. Bideo-tutoriala



Tresna digital honetan aurkezpenaren ikustea errazteko, esteka gehitu behar da eta modu publikoan erakutsiko da:

Piktochart aurkezpen digitalerako

esteka: <https://create.piktochart.com/output/31401193-competencias-profesionales-digitales-y-l2>

Aurkezpen-modura sartzeko, pantailako goiko ezkerreko aldean, IKT tresnaren ikonoaren azpian, dagoen «Show presentation» mezuan sakatzea besterik ez dago, irudi honetan erakusten den bezala



Aurkezpen-moduan diseinatu dituzten profil profesional desberdinak gainerako ekipoen ikasleekin partekatu ahal izango dira.

Irakasleek iradoki ahal izango dute ekipa bakoitzak bere konpetentzien araberrako profila edo modulu profesional gehiago sortzea. Era berean iradoki ahal izango da lanpostu zehatzak kontuan hartuz profilak diseinatzea, modulu profesionalen konpetentziak alde batera utzita.

Irudi honetan tresna digitalaren itxura ikusten da, aurkezpen moduan.



Bi irudi hauetan aurkezpenaren diapositibak ikus daitezke.

Irudia: Nazioarteko Merkataritzako goi-mailako zikloa ikasten duen enplegu-eskatzaille baten profilaren aurkezpena



Irudia: Enplegu-eskatzaillearen lan-itxaropena



5. urratsa. Profil pertsonala eta soziala

Enplegu-emaeleen rola duten ekipoek euren langileek izan behar dituzten jarrera eta trebetasunekin lotutako konpetentzia pertsonal eta sozialak landuko dituzte.

Elkarlaneko hitz-hodeiak sortuko dira eta horietan trebetasun sozialak izeneko konpetentzia hauekin lotura duten hitzak sartuko dira.

WordArt edo antzeko tresna erraza erabil daiteke, zeinetan ez den izena eman behar eta modu errazen editatu eta gorde ahal den. Esteka hau da: <https://wordart.com/>

3. tutoriala: [WordArt tresnarekin hitz-hodeia nola egin](#)

Hitz-hodeiak sortu ondoren, TwinSpace-ko materialen tokira igo beharko dira eta «Lan bila» orrialdearen azpi-orrialdean gehituko dira.

Irudia: Trebetasun sozialen irudia WordArt tresnan



Irudia: TwinSpace-ko pantaila WordArt tresnan sortutako trebetasun sozialen hodeiarekin

https://twinspace.etwinning-training.net/16822/pages/page/72731 80%

Pages

- EQUIPOS Y ROLES DEL ALUMNADO
- Festival virtual de eT-Patrimonio
- Diario de aprendizaje
- ¿Nos conocemos?
- Repasando el eT-Patrimonio de los estudiantes socios
- Repasando el eT-Patrimonio: ¿Es Cuenca o Dublín?
- Concurso evaluación: ¿Conoces a tus socios?
- Video tutorial: creación y gestión
- Búsqueda de empleo
- Competencias profesionales, digitales y lingüísticas
- Competencias personales y sociales (habilidades sociales)**
- Oferta de empleo
- Tablón de empleo en la nube
- Ranking de habilidades sociales

CREATE A PAGE

Competencias personales y sociales (habilidades sociales) Edit page

Nubes de palabras con las competencias personales y sociales (Habilidades sociales) para demandar un empleo:

4. fasea. Enplegu-taula hodeian

6. urratsa. Lan-eskaintza digitala

Enplegu-emailleek lan-eskaintzak sartuko dituzte merkatu birtualean aurkezpen moduan eta enplegu-eskatzailleek curriculuma infografia edo aurkezpen moduan prestatuko dute, euren profila zein den eta zergatik kontratatu behar dituzten bisualki erakusteko.

Bideo-aurkezpena egin ahal da, zeinetan enpresa baten lan-eskaintza bat simulatzen den. Genially bezalako tresna digitalak erabiltzea gomendatzen da.

Horren esteka hau da: <https://www.genial.ly/es>.

Tutoriala: <https://www.youtube.com/watch?v=6gfp4zxjtf0>

Aurkezpen publikoaren modua hautatuko da eta hurrengo estekan ikus daiteke:

<https://view.genial.ly/5b4a61ead5de275f9f0292b9/oferta-de-empleo>

Hona hemen lan-eskaintzaren bideoaren itxura:

https://view.genial.ly/5b4a61ead5de275f9f0292b9/oferta-de-empleo

Características del puesto de trabajo

1. Trabajo en Europa
2. Venta a clientes y por catálogo
3. Gestión de la página web de la empresa
4. Posibilidades de promocionar
5. Relación con proveedores
6. Captación de clientes en expansión
7. Marca de primer nivel en expansión
8. Dedicación y horario a escoger
9. Sueldo base e incentivos por objetivos
10. Gestión de equipos de comerciales

Línea de belleza

genially

7. urratsa. Lan-eskaintza TwinSpace-n

Jarduera-orrialde bat sortuko da TwinSpace-n «**Lan-eskaintza**» izenarekin eta bideoke lan-eskaintza digitalerako esteka gehituko da, irudian ikusten den bezala. Bideoke lan-eskaintza digitala duen orrialdea hau da:



8. urratsa. Lan-eskaintza eta -eskaerarako gun e birtuala

Lan-taula birtuala sortuko da eta horretan eskaintzen estekak eta lanaren bila dauden pertsonen informazioa gehituko da.

Taula hau Linoit tresnarekin egin daiteke eta esteka hurrengoa da: <http://en.linoit.com/>

Lan-taula esteka honetan aurki daiteke:

<http://linoit.com/users/docentefp/canvases/Tabl%C3%B3n%20de%20empleo%20en%20la%20nube>

Hona hemen taularen itxura:



Irakasleek taula TwinSpace orrialdean sartuko dute eta itxura hau izango du:



9. urratsa. Lan-elkarrizketak hodeian

Simulazio hau erreala goa egiteko, bideokonferentzia adostu daiteke enplegu-eskatzaile eta lana eskaintzen duen ekipoen artean.

Bideokonferentzian lan-eskaintza eta -eskaera partekatuko da (pantaila partekatuz) eta enpresan lanpostua lortzeko langile egokien hautaketa simulatuko da.

Bideokonferentziak egiteko informazioa tutorial hauetan jasotzen da


Tutorialak: TSen linean ekitaldia (bideokonferentzia) nola sortu

Elkarrekin, indarguneen eta lan-arrakasta lortzeko konpetentzialki hobetu daitezkeen aldean inguruan hausnartuko da.

Idea-jasa tresna digital batekin egin daiteke, XXI. mendeko lan merkatuan gehien eskatzen diren trebetasunen zerrenda egiteko. Tresna erraz bat Answergarden edo antzekoa izan daiteke. Horren

esteka: <https://answergarden.ch/>

Idea-jasa jarduera irekitzeko, goian eskuinaldean dagoen batuketa ikurrean sakatzeari besterik ez dago, irudian ikusten den bezala.




Sortutako jardueraren esteka honako hau da: <https://answergarden.ch/726576>


Zure ustez XXI. mendeko lan merkatuan gehien eskatzen diren trebetasunak gehitu ahal izango dituzu. Hona hemen iradokizun bat inspirazio gisa:

Komunikazioa, entzute-aktiboa, idazmen-gaitasuna, adierazpen egokia, antolaketa, planifikazioa, proiektuen gauzatze eraginkorra, lan eginkizunen gauzatze eraginkorra, taldeko lana, kolaborazioa, sormena, efizientzia, efikazia, afektibotasuna, aiurri ona, puntualtasuna, pentsamendu kritikoa, irudimena, arrazoiketa, eskarmentua, ikerketa, arazoak ulertu eta konpontzea, trebetasun sozialak, automotibazioa, jarrera ona beti, ekipoarentzat onuragarria, buru-argitasuna, konponbideak bilatzea, pertsonen arteko komunikazioa, ideiak partekatzea, gatazkak kudeatzea, gatazkak komunikatzea, konfiantzaz komunikatzea, bezeroekin profesionaltasunez komunikatzea, hizketaz kanpoko komunikazioa, itxura zaintzea, moldagarritasuna, aldaketei moldatzea, lan-karga antolatze gaitasuna, ingurune desberdinei moldatzea, malgutasuna, konfort-eremutik irtetera ausartzea, pertsonalitate atsegina, errespetutsua izatea, baikorra izatea, enpatia, entzuten jakitea, aholkatzen jakitea, arazoak arin konpontzea, adimen emozionala, emozioak identifikatu eta kudeatzea, ikerketa-trebetasuna, arazo arruntei erantzunak aurkitzea,

Idea-jasak honako itxura izango du:



Emaitzak TwinSpace-n argitaratuko dira, honako izen hau izango duen orrialde batean: **Trebetasun sozialen sailkapena**



Interesgarria izan daiteke "post" moduan igo den taularen berria bideokonferentzia ezabatzea, eskaintza hori bete dela adierazteko.

AURREIKUSITAKO PRODUKTUA(K)/EMAITZA(K)

- Proiektuaren orrialdeak TwinSpace-n
- Aurkezpen digitalak, Curriculumaren infografia (Info-CV) bezala
- Hitz-hodeiak trebetasun sozialekin
- Bideo moduko aurkezpen digitala lan-eskaintza batekin
- Taula digitalak, taula edo kortxo-aula moduan
- Bideokonferentzia
- Trebetasun-sozialen sailkapena ideia-jasan

TWinspace-KO TRESNAK/KANPOKO 2.0 TRESNAK

Aurkezpenak Piktochartekin <https://piktochart.com/>
 Pixabayko irudiak <https://pixabay.com/es/>
 Hitz-hodeiak WordArt tresnarekin <https://wordart.com/>
 Aurkezpenak Genially tresnarekin <https://www.genial.ly/es>
 Taula birtuala Linoitekin <http://en.linoit.com/>
 Ideia-jasa: Iradokitze eta bozkatzeko tresnak
 Answergarden <https://answergarden.ch/>